

# Idatzarauak: Topiko(a) bihurtu

Nola jokatu behar da mota honetako egiturekin:

## TOPIKO(A) BIHURTU

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: perpaus baten barnean bi nor-sintagma agertzen direnean, eta horietako bat bestearen predikatu osagarria denean, bihurtu aditzak mugagabeen eskatzen du predikatu osagarri hori: ura ardo bihurtu zuten. Hala ere, sintagma izen soil batek osatu beharrean beste osagarri janzten denean, izenondoak, izenlagunak, adjektibo konparatiboak, perpaus erlatiboak, e.a. erabiliz, orduan artikulua eskatzen du askotan. Kasua, berriz, beti absolutiboa erabiliko da: emakumerik ederrena bihurtu zen.

## Idatzarauak: Topiko(a) bihurtu - Akatsak zuzendu

Esaldi hauetako batzuetan akatsak daude. Akatsa duten hitzak zuzen idatzi hutsunean. Akatsik ez badago, idatzi ONDO.

- 1.- Ezkondu zenetik oso gizon atsegina bihurtu da. \_\_\_\_\_
- 2.- Ezinezkoa da, papera ez da dirua bihurtuko. \_\_\_\_\_
- 3.- Nik ez dakit nola egiten duten batzuek, ukitzen duten guztia urre bihurtzen dute. \_\_\_\_\_
- 4.- Ondokoei lagunduko bazenie, lagun hobe bihurtuko zinateke. \_\_\_\_\_
- 5.- Entzun dut, bai, zure lagun batek bere etxea jauregia bihurtu duela. \_\_\_\_\_
- 6.- Lan zaila erraza bihurtzen da pazientzia pixka batekin. \_\_\_\_\_
- 7.- Alferrik ari zara, ez duzu astoa zaldia bihurtuko. \_\_\_\_\_
- 8.- Mikelek lan guztiak arazo bihurtzen ditu, oztopoak besterik ez ditu ikusten eta. \_\_\_\_\_
- 9.- Zeure burua zainduko bazenu, lantokiko gizonik dotoreena bihurtuko zinateke. \_\_\_\_\_
- 10.- Hasiera batean arazo txiki bat zena, ikaragarria bihurtu zen. \_\_\_\_\_

## Idatzarauak: Topiko(a) bihurtu - Itzulpenak

Itzuli esaldi hauek:

- 1.- Has convertido el trabajo en problema/Tu as changé le travail en problème.  
\_\_\_\_\_
- 2.- La fiesta se convirtió en un desierto cuando empezó a llover/La fête s'est changée en désert quand il a commencé à pleuvoir.  
\_\_\_\_\_
- 3.- Te has convertido en una persona muy desconfiada/Tu est devenue une personne très méfiante.  
\_\_\_\_\_

4.- Es capaz de convertir cualquier sonrisa en lágrima/Il/Elle est capable de changer une sourire en larme.

---

5.- ¡Ves en qué te has convertido!/Vois-tu ce que tu est devenu/e?

---

6.- Vivir juntos se convirtió en un infierno/Vivre ensemble est devenu un enfer.

---

7.- Hablar contigo se ha convertido en algo imposible/Parler avec toi est devenu impossible.

---

8.- No quiero convertir esto en una discusión/Je veux pas convertir ceci en une discussion.

---

9.- Josune ha convertido a su hija en una princesa/Josune a converti sa fille en une princesse.

---

10.- La niña se ha vuelto mujer/La môme est devenue une femme.

---

## Zuzenketa-orria

### Idatzarauak: Topiko(a) bihurtu - Akatsak zuzendu

- 1.- Ezkondu zenetik oso gizon atsegina bihurtu da. (ondo)
- 2.- Ezinezkoa da, papera ez da dirua bihurtuko. (diru)
- 3.- Nik ez dakit nola egiten duten batzuek, ukitzen duten guztia urre bihurtzen dute. (ondo)
- 4.- Ondokoei lagunduko bazenie, lagun hobea bihurtuko zinateke. (ondo)
- 5.- Entzun dut, bai, zure lagun batek bere etxea jauregia bihurtu duela. (jauregi)
- 6.- Lan zaila erraza bihurtzen da pazientzia pixka batekin. (ondo)
- 7.- Alferrik ari zara, ez duzu astoa zaldia bihurtuko. (zaldi)
- 8.- Mikelek lan guztiak arazo bihurtzen ditu, oztopoak besterik ez ditu ikusten eta. (ondo)
- 9.- Zeure burua zainduko bazenu, lantokiko gizonik dotoreena bihurtuko zinateke. (ondo)
- 10.- Hasiera batean arazo txiki bat zena, ikaragarria bihurtu zen. (ondo)

### Idatzarauak: Topiko(a) bihurtu - Itzulpenak

- 1.- Has convertido el trabajo en problema/Tu as changé le travail en problème.  
(Lana arazo bihurtu duzu.)
- 2.- La fiesta se convirtió en un desierto cuando empezó a llover/La fête s'est changée en désert quand il a commencé à pleuvoir.  
(Festa basamortu bihurtu zen euria hasi zuenean.)
- 3.- Te has convertido en una persona muy desconfiada/Tu est devenue une personne très méfiante.  
(Oso pertsona mesfidatia bihurtu zara.)
- 4.- Es capaz de convertir cualquier sonrisa en lágrima/Il/Elle est capable de changer une sourire en larme.  
(Edozein irribarre malko bihurtzeko gauza da.)
- 5.- ¡Ves en qué te has convertido!/Vois-tu ce que tu est devenu/e?  
(Ikusten al duzu zer bihurtu zaren!)
- 6.- Vivir juntos se convirtió en un infierno/Vivre ensemble est devenu un enfer.  
(Elkarrekin bizitzea infernu bihurtu zen.)
- 7.- Hablar contigo se ha convertido en algo imposible/Parler avec toi est devenu impossible.  
(Zurekin hitz egitea ezinezkoa bihurtu da.)
- 8.- No quiero convertir esto en una discusión/Je veux pas convertir ceci en une discussion.  
(Ez dut kontu hau eztabaida bihurtu nahi.)
- 9.- Josune ha convertido a su hija en una princesa/Josune a converti sa fille en une princesse.  
(Josunek printzesa bihurtu du alaba.)
- 10.- La niña se ha vuelto mujer/La môme est devenue une femme.  
(Neska emakume bihurtu da.)